

ÇA COMMENCE AUJOURD'HUI / HOY EMPIEZA TODO

Zaborra lehertzeaz

ALBERTO BARANDIARAN

“Zaborra hazi eta hazi besterik ez da egiten ari, eta begien aurrean leher-tuko zaigu dena”. Beharbada hori izango da film hau laburbiltzen duen ideia nagusia, Bertrand Tavernierren film konprometituenetako bat: gure gizartearen gai betierekoa, umeen hezkuntzarena, nola bilakatzen den, denen begien aurrean, non eta Frantzia iparraldeko herri normal batean, gizartearen gainbeheraren metafora. Eta erraz eta berehala ulertzen da mezua, gurea izan zitekeelako herri hori. Gurea izan zitekeelako film hau, gure herri bateko eskola baten zuzendari konprometitu baten istorioa.

Herri bat, beraz, eta eskola bat. Eta zuzendari bat, herri horretako eskolak jokatzeko duen paperaren garrantziaz erabat sinetsita dagoena, hain baita estua harekiko transmititzen duen ardura. Tavernierrek horixe kontatu nahi digu, ideia eta konpromiso batekiko lotura irmoa. Eta filmean, horregatik, ez da eskola besterik agertzen. Dekoratu bakarra da. Dena gertatzen da umeak goizean jaso eta bazkalondan despeditu arteko tarte horretan. Dena kontatzen da eskolako patioa inguratzen duten pareten artean.



Maisutasun handiz kokatzen da Tavernier espazio horretan, eta sinergiaritasun konplikatu eta harrigarria lortzen du geletan neska-mutikoen artean mugitzen denean. Umeekin egiten duen lana nabarmentzeko modukoa da, benetako aktoreak lortzen baititu zuzendariak, aulkie-

tatik mugitu gabe. Lortzen baitu film bat gidatzeak eskatzen dituen mugimenduak eta erreplikapenak eta buruhausteak, atrezzo guztia, ez izatea arrotza umeentzat, eta haien joko eta dinamikekin mimetizatzea kamera. Filmaren lorpen handienetako bat horixe da: barrutik erakutsi ahal iza-

tea eskola, artifiziorik eta manikeismorik gabe.

Ondorioz, dena da erreala. Erreala da umea eskolara ekartzen duenean konortea galtzen duen ama alkoholikoaren lotsa eta ezinegona; erreala da mutiko baten isiltasun gordina burutzean eta sorbaldan dituen orba-

nez galdetzen diotenean. Erreala da, oso, langabeziak itota bizi den meatze herriko emakumeen bakardadea. Eta erreala zuzendariaren etsipena, hezitzaile ez ezik gizarte lana egitera derrigortuta ikusten duenean bere burua, babesik eta elkartasunik gabe.

“Ez zaizkit ateak gustatzen”, kexu da protagonista. Eskola irekia nahi luke berak, eskola zabala eta argia. Baina inguratzen duen mundua ez da horrelakoa. Eskola aparkaleku bat bezala ikusten dute askok, baita zuzendariaren lankide batzuek ere, ez dutelako sinesten txikienezko benetako aukera izan daitekeela irakas-kuntza, miseriatik ateratzeko ate bat zabaldu ahal diela.

“Gurasoek hartu behar dute ardura, guk ezin dugu dena egin”, erantzuten dio alkateak eskolako zuzendariari, horrek baliabide gehiago eskatzen dizkionean. “Eta umeak?”, salto egiten du zuzendariak: “Zer egingo du gu umeekin?”.

Tavernierren lan honi etsipena dario, ez baita etorkizunik ikusten. Gela bilakatzen da argitasun eremu bat iluntasun eta kezken artean, baina bukaeran geratzen den mezua horixe da: zaborrak gero eta gehiago okupatzen duela, eta ez dugula tokirik. Eta ezin dugula ohe azpian ezkutatu.



Festival de cine de San Sebastián 2021

ENTRE DOS AMANECERES
de Selman Nacar

NEW DIRECTORS
Próximamente en cines



UN AMOR INTRANQUILO
de Joachim Lafosse

PERLAK
Próximamente en cines

UN PEQUEÑO PLAN... COMO SALVAR EL PLANETA
de Louis Garrel

PERLAK
Próximamente en cines

